



KULTURA: ESKAINTZA OPAROA MUSIKA HAMABOSTALDIAN

ARRASATE

P R E S S

1997ko
Urriak 24
381. zenb.

GUGGENHHEIM

MIKEL
ETXAGIBEL

ARRASATEAR BAT
MUSEOAREN ZUZENDARITZAN

30 GALDERATAN: MARI LUZ PARDO • IKUSPEGIA: AMAIA JAUREGI-ARRABURU
KIROLAK: DABID BELATEGI • IRITZIA: JOSE LUIS ARMENDIA

L'ORÉAL
PARIS

COLOR PERSIST

Markarik utziko ez dizun
makilaje iraunkorra.

Makilaje
iraunkorrei buruz
daukazun iritzia
aldatuko duzu.

**ALTUNA
LURRINDEGIA**

Maalako Errabala, 19 • ARRASATE
Tel.: 79 14 23

Komunikabideen indarra

Azken urteotan komuni- kabideak hartzen ari diren indarra eta daukaten eragina benetan harrigarria da. Hainbat gauza ez badira komunika- bideetan azaltzen gertatu ez balira moduan geratzen dira, eta hainbat gauza, agertzen direnak, hain modu manipulatuazalean azaltzen dira ezen ematen duela izandakoa baino askoz gehiago izan dela, edo alderan- tziz, hau da, inolako garrantziarik ez balu bezala, lau lerrotxoko aipamen labur bat eginez izkina batean. Eta gu, zer ematen diguten hura hartu, zer nahi duten guk pentsa edo senti- tzea huraxe pentsa edo sentitzen dugularik.

Zein ez ote den komunikabideen



Amaia Jauregi-Arraburu

“Albisteak baino toki gehiago iritziak eta politikari eta abarren adierazpenak hartzen baitute!

indarra, azkenetan kontura- tzen bazarete albisteak baino toki gehiago iritziak eta politikari eta abarren adierazpenak hartzen baitute, euren bulegoetan baino komunikabideetan lan gehiago egiten dutela pentsarazteko moduan. (Ez ote da izan ere horrela).

Zer esan iragarkiei buruz? Manipulazioa ez, askotan engainu hutsa bihurtzen dira: ez dakit zein metodo magiko argaltzeko edota etxean ikasiz elektronika, marrazki... eta hainbat gaietako tituluak lortzeko. Enfin, zerrenda oso luzea izango litzateke.

Gero beste arlo bat ere badugu, hau da, entreteni- garri edo denbora pasara- ko eskaintzen diguten hainbat egunkari/aldizkari

atal edota irrati/telebista programa. Nahi dutena esango dute, sinistarazi nahi izango digute jendeak hori eskatzen duela edo kalitatezko eta profesionalen esku dauden programak direla, baina hauek egia esan, ez manipulatuazale ez engainagarri, hauek lotsagarriak besterik ez dira. Eta hori emakumeei ematen zaien tratamendua ikutu barik, zeren hori ere nahi eta nahiez poliki poliki barneratuz doan jarrera bat bihurtzen da.

Benetan panorama beltza, ezta? Esajeratzen ari naizela? Baten batek hori uste badu aste batean bai egunkari zein telebista eta irrati programak ikuspegi kritiko batetik aztertze- ko besterik ez nioke eskatuko, ea zer deritzon. Eta astebete izan beharrean jarraieran balitz hobe baino hobeto, agian horrela ez ligukete horrenbesteko adarrik joko, batez ere kontuan badugu guzti honen atzean mugitzen diren interes ekonomiko eta sozialak.

ARRASATE
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otarola kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Ibarro Zubillaga, Marian Porcel, Patxi Montero. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerna Altube (Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ibarro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Uribarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arraburu, Justin Baulista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmelo Perez, Kopi, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Iasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28).
©ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua.
Inprimategia: Gerutu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain har- tzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Beñardo Kortabarria.

Arrasateko Udaleren laguntzaz
Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntzaz
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailerren laguntzaz

381. zenbaki honetan

1997ko urriaren 24an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..	10/12	Azoka plaza	26/27
Inkesta.....	7	Txutxumutxuak.....	14/15	Udalatxeko hegaziak ..	28
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan.....	18/21	Denbora pasa	29
Astearen erreposoa.....	9	Kulturaren txokoa ..	24/25	Ikusi eta entzun	30

Ikuspegia
Amaia Jauregi-Arraburu.....3

Iritzia
Jose Luis Armendia.....8

30 galderetan
Mari Luz Pardo.....17

Kulturaren txokoa
Juan Carlos Irizar.....25

Aurrez aurre
Mikel Etxagibel.....24/25

Mikel Etxagibel ekonomilari arrasatearrak Guggenheim-en urtero 1.700 milioiko diru-sarrera lortzeko ardura du.

24

ostirala

■ ZINEA

Adictos al amor. Alai zinemaren 7etan eta 10etan.

■ AITA MENNIREN
MUSIKA HAMABOSTALDIA

Goikobalu abesbatzak San Frantzisko elizan kontzertua eskainiko du gaueko 8etan.

25

larunbata

■ ZINEA

La dama y el vagabundo. Alai zinemaren arratsaldeko 5etan. Umeendako prezioa 375 pta. *Air force one* arratsaldeko 7.30etan eta 10etan.

■ AITA MENNIREN
MUSIKA HAMABOSTALDIA

Easo abesbatzak kontzertua eskainiko du Aita Menniko elizan arratsaldeko 5etan.

■ JUAN CARLOS
IRIZARREN DISKOAREN
AURKEZPENA

Juan Carlos Irizarren *Interores* diskoaren aurkezpena eta kontzertua Amaia antzokian gaueko 8etan.

26

igandea

■ ZINEA

La dama y el vagabundo. Alai zinemaren arratsaldeko 5etan. Umeendako prezioa 375 pta. *Air force one* arratsaldeko 7.30etan eta 10etan.

■ LEHEN
JURNARTZEAK

San Juan Bataiatzailearen Parrokiko 33 neska mutilek Lehenengo Jaurnartzea ospatuko dute eguerdiko 12.30etan San Frantzisko Elizan.

■ SAN VIATOR VII.
PERRETXIKO LEHIAKETA

Perretxikoen aurkezpena goizeko 11etatik 2ak arte. Sari banaketa eguerdiko 1.30etan.

■ AEK EGUNA
PORTUGALETEN

Arrasateko AEKk autobusa antolatu du Portugaletara joateko. Irteera goizeko 10etan Garibaitik

27

astelehena

■ ZINEA

Air force one. Alai zinemaren 7etan eta 9.30etan.

■ AITA MENNIREN
MUSIKA HAMABOSTALDIA

Rusia Ortodoxa abesbatzaren kontzertua arratsaldeko 5etan Aita Mennin.

■ HITZALDIA
MONTERRONEN

Gaia: Herri Erresistentzia Guatemalan. Arratsaldeko 7etan Monterronen. Bake eta Elkartasunerako Fundazioak antolatuta.

28

asteartea

■ ZINEA

Air force one. Alai zinemaren 7etan eta 9.30etan.

■ AUTOESTIMA
IKASTAROAREN HASIERA

Ikastaroa arratsaldeko 4.45etatik 6.45ak arte. Asteartero abenduaren 16a arte.

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABAETA

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiraletan
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

29 asteazkena

■ IPUIN KONTALARIA

Antoni Ripoll ipuin kontalaria arratsaldeko 6etan haur liburutegian. 8 urtetik gorako neska mutikoentzat.

30 osteguna

■ ZINEA

Blackout. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ ZINE KLUBA

Los ladrones. Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Zuzendaria: André Techiné. Sarrera 400 pta. eta Gazte Txartelarekin 350 pta.

■ AITA MENNIREN MUSIKA HAMABOSTALDIA

Ospitaleko gaisoen abesbatzak emanaldia eskainiko du arratsaldeko 5etan Aita Menniko Areto Nagusian.

■ HITZALDIA

Gaia: Asoziazionismoa komertzio txikietan. San Viatorren gaueko 8.30etan. Ibai Artek antolatuta.

■ PERKUSIO TAILERRA

Iñaki Bruñaren eskutik astelehenetan emango da perkusio tailerra arratsaldeko 6etatik 9ak arte Gazteluondoko ikastolan. Hastapen eta sakontze mailak eta erritmo desberdinak: afrikarrak, arabiarak, hegoamerikarrak, sanba, rock and rolla. Izenematea Gazte Bulegoan egin behar da (77 00 65).

■ JUBILAZIOARI BURUZKO IHARDUNALDIAK

Azaroaren 3an, 4an, 5ean, 10ean eta 11n Bergaran emango dira jubilazioari buruzko ihardunaldiak. Klaseak arratsaldeko 5.30etatik 7.30ak

arte. Izenematea dohainekoa da. Informazio gehiagorako deitu 71 20 72 edo 71 22 28 telefono zenbakietara. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gizartekin-tzak antolatu dute.

■ JOKIN ZAITEGI ETA ARRASATE 97 LEHIAKETAK

AED elkarteak eta kultura sailak antolatutako Jokin Zaitegi XI. itzulpen laburren sariketa eta Arrasate 97 literatur lehiaketan lanak aurkezteko epea urriaren 31an bukatuko da.

■ GIMNASIA TERAPEUTIKOA

Masaia eta automasaia, erlajazio desberdi-

nak, yoga, arnasketak, luzaketak erakutsi dira besteak beste gimnasia terapeutikoko ikastaroan. Interesatuok Jose Luis Iñarra kalean Yoga elkarteak duen egoitzara joan zaitezke edo arratsaldeko 7etatik 8.30ak arte 77 01 33 zenbakira deitu.

■ PINTURA ERAKUSKETA

Eluska Zabalo arrasatearrak pintura erakusketa jarriko du urriaren 30etik azaroaren 9a arte Eibarko Arrate kultur Elkartearen Ordutegia: 7etatik 9ak arte. Larunbatetan eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta 7etatik 9ak arte



■ ARGAZKI ERAKUSKETA MONTERRONEN

Urriaren 27tik azaroaren 2ra arte Guatemalari buruzko argazki erakusketa Monterronen. Ordutegia 6etatik 8ak arte. Larunbatetan eta jai egunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte. 30 argazki eta testuen bidez Erresistentziarako Biztanlegoaren Komunitateen eredu-zko borroka erakutsiko dute. Bake eta Elkartasunerako Fundazioak antolatu du erakusketa.

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 79 22 70

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 24

• Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

Larunbata 25

• Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

Igandea 26

• Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

Astelehena 27

• Egunez eta gauez: Amezua. Santamaina.

Asteartea 28

• Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

Asteazkena 29

• Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

Osteguna 30

• Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara 76 55 76

DYA

Antzuola 78 71 57

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria	77 03 46
• Espezialitateak	77 05 78
	77 12 64
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Arretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Arretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	088

Ertzaintza

Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

Garraioak

Taxiak	79 12 22
PESA	902 10 12 10

Hirugarren adinekoendako zentruak

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa

KIUB-OMIC	79 51 55
-----------	----------

Monterrongo liburutegia

Monterron. 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 79 58 77

ARRASATE DUELA 61 URTE

1936ko irailaren 26an altxatutako frankistek Arrasate hartzen zuten. Ia erdi hutsik zegoen herri bat aurkitu zuten, non biztanlegoaren %60a Bizkaia aldera alde eginda zegoen.

Egunean bertan, hainbat eta hainbat ikurriña eta bandera gorri erre zituzten. Ekin-tza honek, arrasatear askoren bizitza baldintzatu zuen betirako, era berean zenbait gertakizuni hasiera eman zielarik.

Urriaren hasieroan "representación del glorioso ejército liberador de España" zeritzonak Udal Gestorako partaide zirenak izendatu zituen. Jose Añibarro Resusta izendatu zuten alkate, kargua hartu zueneko hitzak hauek izanik: "Bere lanaren onarpena, eta bere atxekimendua España berriari, España handi eta zintzoari, bakarra eta banaezinari".

Urriaren 5ean Arrasateko 24 lagun inguru atxilotu zituzten, egun batzuk pasa ondoren askatu zituzten militarrek inongo deliturik hartzematen ez zitelako, halerre 10 egun pasa ondoren berriz ere atxilotu zituzten. Egun hartan, Udal Gestorak bere dimisioa aurkeztu zuen, azken atxiloteten arrazoiei beraien desadostasuna hone-ladieraziz: Hainbat arrasatearren salaketa non zenbait pertsona akusatu zituzten 19334 urteko urriko iraultzan Marcelino Oreja hiltzeaz. Gezur handi hau medio,

egun batzuk pasa ondoren atxilotuak afusilatu zituzten.

Hurrengo egunean beste gestora bat osatu zen, lehendakaritza Jesus Gorosabel Mendiaren esku utziz. Honek, Latorre koronelarekin batera, bere adostasuna azaldu zuen burututako salaketarekin.

Urriaren 20an, Arrasate eta inguruetako 22 preso Ondarretako espetxera trasladatu zituzten, 21etik 22rako gauan fusilatuak izanik. 25etik 26rako gauean beste 4 pertsona fusilatu zituzten Oiarzungo hilerrian; azaroaren 5ean bete 16 arrasatear fusilatu zituzten hilerri berean (hauen artean sozialista baten ama, emaztea eta arreba) beste guztiak euskal nazionalistak ziren.

Espediente prozesalaren arabera, denak irten ziren aske espetxetik. Gaur egun oraindik epaitegian azaltzen denez guztiak ziren etxetik desagertutakoak, askatasunaren gerran zauritutakoak edota gerrako inzidentziak.

1937ko ekainean Bilbo jausi ondoren, gerra errepublika adekoengandik harra-patuak eta Bilboko kartzele-tara bidaliak izan zirean 91 arrasatear herriratu ziren, guztiak bizirik.

61 urte pasa dira jada, baina umezurtz geratu ziren 62 haurrek eta ehundaka eta gure aiton amonak ezagutu ez ditugun ehundaka bilobek ez dugu inoiz gertatutakoa ahaztuko. Historia errepikatu ez dadin ez dugu ahaztuko.

Juan Ramon Garai.

Gutunen araudia

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin, gutunetako sailean araudi berria ezarri dugu.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko ditu nahi eta nahiez:

- Egilearen izenaz argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da.

- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzeko saiatuko gara.

- Anonimo, gaitzenez edo inisialez datozenez ez dira argitaratuko.

- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordenean kale-ratuko dira gutun guztiak.

- Gutun iraingarriak ez dira argitaratuko.

- Egilea bera dela egjatzatzeko, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du bertan. Telefono zenbakia nahikoa da.

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

Zer erizten diozu Guggenheim-i?




Dionisio Bastardo
(62 urte)
Jubilatua

Batzurendako ondo egongo da, baina gehiengoarentzat gastu ikaragarria izan da eta ez dakit zenbateraino merezi duen.



Iker Allur
(19 urte)
Ikaslea

Ez dakit, Euskadirendako ondo egongo da. Orain ez daukat denborarik, baina astia hartuz gero joango nintzateke ikustera. Zergatik ez?




Jesus Casado
(63 urte)
Jubilatua

Ondo dago, zerbait ekarriko duela uste dut. Jainkoa lagun egunen baten joango naiz ikustera.



Teresa Hidalgo
(62 urte)
Jubilatua

Ondo dago, arkitektura aldetik izugarria delako eta gainera lanpostu asko sortu duelako. Badaukat bai joateko asmoa.



Mikel Gonzalez
(15 urte)
Ikaslea

Ez zait asko gustatzen, ez da hemengo jendeak egindakoa eta. Halere ikusi nahiko nuke, oso ona dela esaten dutelako.



Josefa Estrella
(23 urte)
Ikaslea

Ez dakit, askotxo gastatu dutela badakit, baina ez dakit. Uste dut joango naizela ikustera.



Itziar Aranburu
(41 urte)
Langilea

Pasada bat. Kulturaren alde nago, horrelakoak egin behar dira, baina aurrez lehentasunak markatuta eta hori ez dago lehentasunen artean.



Rakel Diaz
(36 urte)
Langilea

Eraikin izugarri polita iruditzen zait, Bilboren irudia ondo erakutsiko duena. Besterik ez bada, turismoa erakartzeko balioko du. Ikusiko dut.

Txitxinpe
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!
Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

LAKET
Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis
Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 79 11 72

MARY KAY
Mary Kay kosmetika konpainiak, 27 herrietan presentzia duenak eta EE.BBetan salmentetan lehena denak **lana eskaintzen** die emakume serioei.
Elkarrizketa eguna zehazteko dei egun 21 19 90 telefonora.

USTEAK USTE

Alternatiba matematikoa

Esan nuen orain hiru aste, hurrengo batean idatziko dut Madrilgo epaiketaren gainean. Agindua zor.

Eroango ote naute? Ez naute eroango? Kartzelara, esan nahi dut. HBkoek erobatan badituzte, neu ere bai. Izan ere, aspalditxo ikusi nuen Alternatiba Demokratikaren bideoa, irakurri paperezko bertsioa, eta lagun artean, kafe konpletoren orduan, behin baino gehiagotan diskutiru. Horregatik, pentsa neike errudun naizela. Kontua da ez naizela horrela sentitzen.

Sinplea da Alternatiba demokratikoa. Herriari utzi erabakitzen esaten du bideoak, eta herriak erabakitzen duenarekin gu ados esaten du ETAK; 2+2=4. Hau idaztea ere apologia izango da?

Itxaropentsu egongo dira etxegileak. Pentsa, autoinkulpatu denak barrura sartuz gero, zenbat kartzela berri egin behar! Gasolina eta auto saltzaileak ere, holatsu egongo dira: ala! auto gehiago asteroko asteroko karteletarako bisitetan. Eta gobernua? langabeziari aurre eginez, makina bat kartzela funtzionario lanpostu berri.

Beñardo Kortabarria



Yoga: norbera ezagutzeko bidea

Jose Luis Armendia

Yogari buruz hitz egiteko, yoga zer ez den adierazten hasiko nintzateke. Alde batetik ez da gimnasia, ezta kirola ere, nahiz eta ariketa fisikoak egin, ez da erlijioa, ezta sekta ere, nahiz eta eskola eta maisu batzuk horrela planteatu.

Yoga, Indiatik datorren bizitzaren filosofia bat da, 5.000 urte daramatza idatzita. Yoga hitzak batasuna esan nahi du, hau da: batasuna aniztasunean, kultura, erlijio, politikan edo sozial mailan, nahiz eta ikuspuntu, sinismen, edo jokaera desberdinak eduki, errespetu guztiarekin batera ibiltzeko bide bat da.

Beste aldetik, gizakiaren ikuspegi holistikoa, hau da: gorputza, adimena, zirrarak, sententzioak, sentimenduak eta abarren batasuna da. "Yoga gizakiaren arlo guztiak

lantzen dituen zientzia da". Yogan ez dago norgehiagokarik, ez besteekin ezta norberaren buruarekin ere. Maila guztietan norberak dituen mugak onartzera jotzen da. "Yoga norberaren esperientzian oinarritzen da eta jendearek ez dio eskatzen ezertan sinestea, ez du dogmarik". Norberaren ezagutza lortu nahi du.

Zehazkiago esateko sikelogia (adimen egoerak) paretotasunari dagokio. Garrantzi handia ematen zaio, kon-

“ Yogan ez dago norgehiagokarik, ez besteekin ezta norberarekin ere ”

tzientzia hartzeari (jabetzea), eta norberari buruz eta uneoro "hemen eta orain". Kontzientzia hartze hori maila guztietan emango da, fisiko, mentalki, animikoki, emozionalki e.a.

Yogak bi ikuspegi dauzka:

1) Osasunaren zientzia (yogaterapia). Adibidez, asma, estrefimendua, bizkarreko minak eta beste hainbat gaisotasunendako saio bereziak dauzka.

2) Autoerrealizaziorako teknikak (barnean dugun gizakia). Eta honek guztiak azaltzeko, esango nuke oinarriko 5 puntu dauzkagula:

Lehen: ariketa fisiko dinamiko eta estatikoak, gihaurren tonon on bat lortzeko.

Bigarrena: arnasketa osoak eta arnasketa teknikak.

Hirugarrena: gorputzaren eta buruaren lasaieketa.

Laugarrena: elikadura naturala eta nutrizio orekatua.

Bostgarrena: pentsaera edo buruko jarrera positiboa.

Aipatutako bost puntuak landuz gero batasuna eta osotasuna lortuko genituzke, hau da: yoga.

Jose Luis Armendia, Arrasate Yoga Elkartearen lehendakaria da.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
 Ferrerías, 35 ARRASATE
 Tel.: 77 13 78

TTUKUN
 Fotokopiak
 Enkuadernazioak
 Koloretan fotokopiak
 Planoen erreproduzioak
 Offseta
 Ferrerías, 23 • ARRASATE
 Tel.: 79 46 62

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:
 • Sukalde altzariak
 • Armairu enpotratuak
 • Trastelekurako armairuak
Fabrikaren erakusketa
 Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
 Tel/Faxa: 79 01 82

astea bi hitzetan

■ Euroaren inguruan berbetan

Euroaren inguruko ihardunaldiak antolatatu zituen Eroskin joan den asterako, bi egunez, batean hitzaldia eta bestean mahaingurua. Euroak izan ditzakeen ondorioen gainean egin zen berba hitzaldian, esateko hasieran arazoak sortuko baditu ere, luzerako ona izango dela. Hurrengo egunean, berriz, banketxetako arduradunek erabili zuten gaia. Euroa ezartzeak ekarriko dituen aldaketak aipatzeaz gain, gauza bat utzi zuten garbi: eurak dagoeneko prestatzen dabiltzala aldaketa gertatzen den egunerako.

■ Tafallako Nafarroa Oinez-en

Kilometroetan ez bezala, arazo barik igaro zen Tafallako Nafarroa Oinez AED-

koentzat, joandako autobus denak bueltatu ziren eta. Pasaia-Lezora moduan, egunean bertan 7 autobus joan ziren Tafallara, baina bezperan beste bat gehiago, antolakuntza lanetan laguntzeko. Beraz, arrasatear mordo Tafalla inguruan.

■ Euskadiko Kutxa munduko 50 onenen artean

The Banker aldizkariak egindako ikerketa baten arabera, Euskadiko Kutxa munduko entitate finantziario guztien arteko 38. onena da. Saikapenean, estatuko beste bi banketxe agertzen dira, euskaldunak biak: B BV eta Nafarroako Kutxa.

■ Mugarik Gabeko Gazteak ikusgai

Arrasateko Udaleko gazteria sailak eta ASA argazki tal-

deak antolatutako *Mugarik Gabeko Gazteak* argazki lehiaketaren sari-banaketa eta erakusketaren irekiera egin zen ostiral arratsaldean Harresi aretoan. Guztira 79 lehiakide, tartean 14 arrasatear, argazki lehiaketa honen zortzigarren edizioan. Erakusketa zabalik izango da datorren ostirala arte.

■ Musika hamabostaldiaren aurkezpena

Aita Menni eta San Juan de Dios ospitaleen mendeurrena dela eta, antolatu den Musika hamabostaldiaren aurkezpena egin zen Montteronen. Mendeurrena ospital biek betetzen dute, baina ekintzak bakoitzak bere aldetik antolatu ditu. Antolaketa bereiztua izan arren, garapena aldi berean egingo dute.



HBko HAUTETSIEIEN KONTZENTRAZIOA

Mahai Nazionalaren Maurkako epaiketa dela eta, protesta modura ostiral eguerdian kontzentrazioa egin zuten gaur egungo HBko zinegotziek eta zinegotzi izandako batzuek. Euskal Herriarentzat demokrazia eskatzen zuen pankarta eskuetan zutela, 15 hautetsiek ordu erdiko kontzentrazioa egin zuten.

“ Euzko Gogoa Jokin Zaitegiren aldizkaria zen. Oso oso euskaltzalea zen. Ez zen gure aburukoa, garbiza-
lea zen, baina euskaltzalea. Badakizu hemen bi garbiza-
lekeria egon direla: bata, Arana Goiriren garbizaleke-
ria, eta bestea, Azkuenera. Zaitegi garbizalea zen Azkueneran bidetik.

(...)

Zaitegirekin harreman onak nituen. Polemika izan nuen berarekin, baina oso adiskideak ginen.

Orixek, adibidez, euskara baserritarrek mintzatzeko besterik ez zuten erabiltzen, baina Zaitegi erabat kontrakoa zen: euskararen literatur prestigioa goratu nahi zuten eta horretarako Platon euskara itzultzen hasi zen. Itzulpen hauen arazoa zen Azkuenera arauetara jarraituz nahi zituela egin, hau da, hizkuntza herrikoian nahi zuten gai filosofikoei buruz mintzo, eta hori ezinezkoa da.

(...)

Zaitegik kondatzen zuenez, egun batean Parisen (Leizaola lehendakariarekin) mintzo zen eta Leizaolaren emazteari esan zion: A ze pena zure seme-alabek euskaraz ez mintzatzea. Eta emazteak: Total, balio duenerako!. Leizaola eta emaztea, biak euskaldunak ziren! Hori zen abertzaleen jarrera. Euskararen etsaiak askotan”.

FEDERIKO KRUTWIG
Jakin, 101. alea.

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

beatriz
oinetakoak
eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE

ITSASKI
ARRANDEGIA
Arrain freskoa
eta jaki izoztuak
Uribe Auzoa
ARRASATE
Tel.: 79 98 94

Ipek
Denda
Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

Uraren eta zaborraren tasak %7,2k

Joan den astelehenean burututako plenoan, 1998rako ordenantza fiskalak onartu zituzten alderdi guztiek PPK ezezik, Palacios ez zen eta plenora agertu. Orokorrean KPIaren igoera izango dute, hau da, %2,1a, baina badira zehaztasun aipagarriak.

Horien artean uraren eta zaborraren ordainagiriak izango duen %7,2ko igoera. Ura %2,1ean garestituko da baina zaborra %15ean. Herri Batasunak gehiegizkotzat jo zuen igoera. Ino Galparsoreren esanetan, "Mankomunitateak ez du ondo planifikatu zabor biltzetaren gestioa eta garraio arazoen desfase ekonomikoa eragin dute". HBK igoera orokorra aplikatu eta zabor biltzetaren gestioa aztertearen aldeko emendakina



Datorren urteko ordenantza fiskalek %2,1eko igoera orokorra izango dute

proposatu zuen, baina Ezker Batuak bakarrik bozkatu zuen proposamenaren alde.

Tasekin bukatzeko, Udal hilerriko nitxoaren igoera %4koa izango dela aipatu behar da.

Nitxoaren 10 urterako lagapenaldia 27.415 pezetatik 30.000 pezetara gehituko da. Titular

Datorren urteko zenbait zerbitzu, tasa eta zergen prezioak

IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Turismoak.....	Kuota
8 ZF.....	3.110 Pta
> 16 ZF.....	22.070 Pta
Motoak.....	Kuota
Ziklomotoak eta 125 CC.....	1.090 Pta
> 1000.....	14.920 Pta

HIRIGINTZA LIZENTZIAK

Obra lizentzia	
1.000.000 PTAtik behera.....	0 Pta
1.000.000 eta 5.000.000 Pta. bitartean.....	6.280 Pta
5.000.000 eta 15.000.000 artean.....	25.295 Pta
15.000.000 Pta.tik gora.....	50.665 Pta

NITXOAK

4 hilobiko panteoia, titular bakar barik (%4)	
10 urteko erabilera lagapena, nitxoko.....	30.000 Pta
harlosa, nitxoko.....	12.120 Pta
10 urteko mantenimendua, nitxoko.....	15.000 Pta
Ehartzeko eskubideak, nitxoko.....	10.180 Pta
EHORZKETAK GUZTIRA.....	67.300 Pta

KIROLDEGIKO INSTALAZIOAK ERABILTZEA

Urteko abonoak

a) Banakakoak	
20 urtetik beherakoak.....	7.400 Pta
20 urtetik gorakoak.....	12.350 Pta
b) Familiakoak.....	19.400 Pta
c) Jubilatua, 65 urtetik gorakoak.....	4.540 Pta
d) Ikasleak, langabeak eta balio urrituak.....	9.265 Pta
e) Federatuak: 20 urtetik beherakoak.....	5.550 Pta
20 urtetik gorakoak.....	9.265 Pta

MUSAKOLAKO KANTXA ALOKATZEA

Kiroldegiko kantxa, ordu bat argiaz.....	3.675 Pta
Frontoiak ordu bat.....	510 Pta
Argi gehigarria frontoian.....	300 Pta
Saskibaloia, eskubaloia, futbitoia e.a. ordu bat kanpoko argiaz.....	920 Pta
Tenisa ordubetez, argia barne.....	510 Pta
Areazko futbol zelaia, ordu bat argiaz.....	2.450 Pta
Antoniñako kantxa, ordu bat argiaz.....	2.450 Pta
Squash, hiru ordu laurden argiaz.....	560 Pta
Ping-pong ordu bat.....	150 Pta
Rokodromoa.....	doan

igoera izango du

bakarrek panteoiak berriz, KPIaren igoera izango dute bakarrik %2,1eko.

PREZIO PUBLIKOAK %2,1 IGOKO DIRA

Prezio publikoek %2,1eko igoera izango dute, Iturbide Egoitzako prezioek ez ezik, horiek %3a jasoko dira eta. Prezioen gaian, AUKE-Ako instalazioen alokairuen igoeraren aurka azaldu zen Ezker Batua. Anjel Tijerok adierazi zuenez, "Urteko ordainagiriak KPIaren igoera izatearekin ados gaude, baina kiroldegia hondamen egoera dela eta, instalazioen alokairua igotzea ez zaigu ondo iruditzen". Dena den, Ezker Batuaren proposamena ez zen aurrera ateratu beste alderdiek ez zute-

lako onartu.

Laubideko prezioak ordea, alderdi guztiek onartu zituzten. Orduko prezioa berdin mantenduko da, hau da 50 pezetatan, eta kontsezioak 60.000 pezeta balioko dute urteko.

IHARDUERA EKONOMIKO ETA IBILGAILUEN ZERGAK IGO

Udalak KPIaren igoera aplikatu die bi zerga horiei, %2,1aren ingurukoa. Eraikuntza, obra eta instalazioen gaineko zergak eta plusbaliak berdin jarraituko dute. Ondasun higiezinaren gaineko zerga ere ez da igoko, baina bere oinarria den balio katastrala, Aldundiak igoko du, beraz, %2,1 garestituko dira ordainagiriak.

ITURRIPEKO KANTXA ALOKATZEA

Kiroldegiko kantxa, ordu bat argiaz.....	3.675 Pta
Frontoi handian, ordubetea.....	430 Pta
Frontoi txikia, ordubetea.....	305 Pta
Argi gehigarria frontoian.....	200 Pta
Kanpoko pistak, ordu bat argiaz.....	920 Pta
Tenisa, ordu bat argiaz.....	510 Pta

ITURBIDE EGOITZAKO ZERBITZUAK

%3 gehituz honela geratu dira prezioak

Balio urrituak.....	84.460 Pta/hilean
Baliodunak (logela batekoa).....	77.870 Pta/hilean
Baliodunak (biko logela).....	64.480 Pta/hilean

URAREN ETA ZABORRAREN ORDAINAGIRIA

Ur tasa 65 Pta/m³

Urtea	1997	1998	%
Gutxienekoa. 30 m ³	3.500 Pta	3.751 Pta	%7,2
40 m ³	4.767 Pta	5.087 Pta	%6,7
45 m ³	5.401 Pta	5.745 Pta	%6,4

Lezetxiki inguruko lurrak itxiko dira

Lezetxikiko gune arkeologikoa babesteko, inguruko lurrak okupatu nahi ditu Udalak. Lur horiek partikularrenak direnez, jabeekin akordio bat lortu nahi da, baina lortzen ez bada, lurrak expropiatuko ditu. Horrela onartu zen astelehenean burututako plenoan.

Lezetxiki babesteko proiektuaren arabera, interes arkeologikoko gunea hesituko da eta horretarako inguruko lurra okupatu behar da. Aztarnategi prehistorikoaren aldameneko lurren jabeak Tomas Atxa eta Victoriano Etxagibel dira. Momentuz, expropiazio espedientea zabaldu da tramiteak oso luzeak direlako, baina epe bat eman zaie jabeei, euren lurrei prezioa jartzeko. Epe horretan akor-

diorik lortuko ez balitz, Aldundian ezarritako prezioen arabera expropiatuko ditu Udalak lursail horiek. Guztira, 8.500 m² inguru dira, 7.762 m² Atxarenak eta 773 Etxagibelerenak.

Aipatu bezala, tramite horiek luzeak direnez, Udalak premiazko baimen berezi bat eskatu dio Eusko Jaurlaritzari. Baimena lortuz gero eta jabeekin akordiorik lortuko ez balitz, Udalak lurrak okupatu ahal izango ditu dirua ordaindu baino lehen.

Lursail horiek lehenbailehen lortu nahi ditu Udalak, proiektua azkar gauzatzeko. Azken urteetan, izugarri hondatu da Lezetxikiko gune arkeologikoa eta perimetroaren itxierarekin, gunearen babes fisikoa bermatu nahi da.



AHTren AURKAKO KATEATZEA BESAIDE INGURUAN

Abiadura Handiko Trenaren aurkako Asanbladako dozena bat kide inguruk sondatze lana egiten ari zen makina geraraztea lortu zuten asteazken arratsaldean. Langileak bazkaltzen zeudela, Udalatik abiatu eta sondatzeko makinan kateatu ziren. Langileak agertu zirenean, lanari ez berrekitzea erabaki zuten. Ekintza horren bidez AHTren aurkako Asanbladakoek isilpean egiten ari diren lanak eta makroproiektu honen basakeria salatu nahi izan zuten.

Mondragon Unibertsitatea ofizialki inauguratu zuen Ardanza lehendakariak

Irailean hasi zen Mondragon Unibertsitateko lehen ikasturtea, baina joan den asteazkenean inauguratu zuen Jose Antonio Ardanza lehendakariak 97-98ko ikasturte akademikoa. Ekintza ofiziala, Amaia antzokian burutu zen arratsaldeko 5etan. Bertan Mondragon Unibertsitateko junta errektoreko partaideekin batera, hainbat agintari: Arrasateko alkatea, Roman Sudupe Aldun nagusia, Inaxio Oliveri hezkuntz sailburua, Pello Salaburu EHU errektorea eta lehen aipatu bezala, Ardanza lehendakaria.

Mondragon Unibertsitateko lehendakaria den Adrian Zelaia aipatu zuenez, MUko abiatzea adierazten duen eki-



Zelaia, Oliveri, Ardanza, Lakunza eta Sudupe, MU inauguratzeko prest.


taldi sinbolokoa izan zen inaugurazioa. Bertan, Jose Mari Ormaetxeak omenaldi berezia jaso zuen kooperatiben eta bere hezkuntza zentroen alde egindako lanagatik. Ondoren,

Ander Etxebarriak Goi Eskola Politeknikoko doktoreak, ikasturteko inaugurazio klasea eman zuen kontrol automatikoa gaitzat hartuta. Azkenik, Jose Antonio Ardanzak MUko

97-98 ikasturtearen hasiera aldarrikatu zuen. Bere hitzaldian aipatu zuenez, Euskal Herrian hiru unibertsitate izango dira aurrerantzean, eta hiruren arteko lehiakortasuna, euskaldunon mesederako izango da. "Gaitasun unibertsitarioa euskal gizartearen eta euskal arazoan zerbitzura jartzeko gai bagara, Euskal Herriak zer irabazi asko izango du" esan zuen lehendakariak. Unibertsitateak 1.700 milioko aurrekontua du eta kopuru horren %15 administrazioak emango du. Bazkide enpresarialak MCC eta ULMA taldea ditu. 97-98 ikasturtea 791 ikasle berrirekin hasi da, eta matrikula kopurua 2.319koa izan da.

perkusio tailerra IÑAKI BRUÑAREN ESKUTIK

- **Hastapen eta sakontze mailak**
- **Erritmo ezberdinak: afrikarrak, arabiarak, hegoamerikarrak, samba, rock & rolla,...**



- **Astelehenetan**
- **Arratsaldeko 6etatik 9etara**
- **Gazteluondoko ikastolan**
- **Izenematea eta informazio gehiago: Gazte Bulegoan (77 00 65)**


gaztemaniak

KONTZERTUA

“Feeling good”

“La oreja de Van Gogh”

“Koko Castillo”



- Urriaren 31n (Ostirala)
- Gaueko 10etan
- Amaiko hall-ean
- SARRERA DOAN

Taberna zerbitzua: Aterpe

gm
gaztemaniak




ARRASATEKO UDALA

Gazteria Saila ■



HEAVY-A CORAZON DE ENCINAN

Dirudienz nahikoa folklore izan dute extremadurarak eta beste musika indartsuagoei utzi diete paso. Joan den zapatuan Lagash heavy taldeak kontzertu ineditoa eskaini zuen elkartearen lokalean, eta publiko gazteak primeran pasa zuen.



AITAK SEMEARI LAGUNDU

Sebastian Lizaso Tolosan sailkatu zen Euskadiko Bertsolari txapelketaren hurrengo faserako, baina ez zuen galdu izan nahi Aramaion burututako ekitaldia. Bertaraino gerturatu zen final

erdietan aurkari izango dituen bertsolarien hitz jariora arretaz entzuteko, baina ez zen bakarrik egon. Aita, Joxe Lizaso, aldamenean izan zuen gomendioren bat edo beste emateko.



25 URTE EZKONDUTA

Agustin Elorzak eta Teresa Altunak urriaren 14an bete zituzten zilarrezko eztaiak. Egun berezi hori ospatzeko afaria egin zuten senitartekoekin batera. Agustinek eta Teresak bi seme alaba daukate. Bikotea duela 25 urte Dorletan ezkondu zen eta ezkonbidaian Kanariar irletan egon ziren.



BEGIRALE HARROBI GALANTA

Txatxilipurdikoez begirale harrobi ederra landu dute azken urteetan eta horren erakusle goiko argazkia. Berrogei bat

lagun inguru elkartu ziren joan den ostiralean taldea osatzeko asmoarekin. Momentuz, Lasarteko begirale elkarte

batekin jarriko dira harremanetan taldearen funtzionamendua ezagutzeko. Umeek badute bai, nork zaindu.



PORTUGALETEN EZKONDU

Aitor Sáez Azkunaga Karmele Uribarriekin ezkondu zen urriaren 11n Portugaleteko San Kristobal ermitan. Aitor arrasatearra da eta Karmele Portugaletekoa. Ezkon-bidaira astelehenean joango dira Mejikora. Udalaitez mediku zentroko lankideen partetik zorion beroenak eta urte askotarako.

IZENAK

Argazkilariak

Haritz Iñurategi Deba Garaiko 14 eta 18 urteko kategorian, **Fernando Gomez** 19 urteko gorako kategorian zuribeltzean, eta **Amaia Castillo del Moral** koloretan. Aipatutako hirurak izan ziren ASA argazki taldeak eta Arrasateko Udaleko gazteria sailak, *Mugarik gabeko gazteak* izenburupean antolatutako argazki lehiaketaren irabazleak.

Rent a Car

Alkilerreko autoak:
Twingo, Clio, Mégane,
Laguna, Espace...

Tel.: 79 50 12 / 79 52 12

MECA

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.
Batetik, kalitate eta diseinurik
handieneko logelak, garantia osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean,
merkeenak.

**BENETAN
HARRIGARRIA!**

LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!

Araba Etorbidea, 5 • Eskatu Pabilloia • ARRASATE • Tel./Faxa: 79 41 82

ARKAZ

sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaian
Betiko muntaiak

FAGOR



Mitarte, 3 • ARETXABALETA • Tel. / Faxa: 77 04 55

■ Mari Luz Pardo

LARRINGAN AUTOESKOLAKOA



Berregarar honek 12 urte daramatza Larringan autoeskolako mostradorearen atzean. Eskerrak pazientzi handikoa den, bestela ezin agoantatu egunero-egunero gidatzeko baimena atera nahian dabiltzanei zorioneko test-en erantzunen zergatiak hamaikagarren aldiz esplikatzeko. Bere ametsa zein den ez du esan, baina ez da Caribeko hondartzetatik oso urruti ibiliko; eta konpainia onean, hobe.

1. Zein da zure horoskopoa? Virgo.
2. Sinestuna zara? Bai.
3. Animalia bihurtzekotan? Arrano.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Agintzea/Pazientzia.
5. Zerk lotsarazten zaitu? Gerrak.
6. Amets bat? Ez daukat erantzunik.
7. Zer kenduko zenuke mundutik? Miseria.
8. Gertakizun historiko bat? Berlingo harresia behera bota zenekoa.
9. Nor miresten duzu? Oraindik ez da jaio.
10. Zeri diozu beldurra? Minari.
11. Zertaz damutzen zara? Bizitza ongi ez baloratzeaz.
12. Negar egin duzun azken aldia? Hei-direkin.
13. Zer falta zaio Arrasateri? Apar-kalekuak.
14. Eta zuri? Kevin Costner.
15. Lanbidez aldatzekotan? Hondartzetan tunbonak banatu eta biltzen.
16. Arrasateko gustoko toki bat? Santa Barbarako parkea.
17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Inork aurkituko ez nauen nonbaitera joatea.
18. Zein egunkari irakurtzen duzu? *El Diario Vasco*.
19. Gustoko janari bat? Postreak.
20. Liburu on bat? *El puño de Dios*.
21. Filmerik onena/txarrena? *Cuando un hombre ama a una mujer / La colina del amor*.
22. Musika talderik onena/txarrena? Sting/asko.
23. Telebistako programarik onena/txarrena? Albistegiak/Reality showak.
24. Egin dizuten oparirik politena? Body beltz bat.
25. Denbora librean zertan pasatzen duzu? Irakurtzen eta *tumbing* praktikatzeko.
26. Oporretarako toki bat? Caribea.
27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Plantxa egitea.
28. Gomendio bat? Bizi eta utzi beste bizi bizi.
29. Zerbaitegatik emango zenuke bizi bizi? Ezergatik.
30. 200 milioi irabaziz gero? Zertxobait hobeto bizi.

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

EXTRA

Deba Garaiko Kazeta

Asteartero, ostegunero eta larunbatero
kioskoetan salgai.

Nafarroa etorbidea, 23 • 218 postakutxatila
Tel.: 79 82 68 • Faxes: 79 43 03

DEBA GARAIKO JATETXE GIDA

- Bailarako 100 jatetxe.
- Sukaldeko 100 errezeta.
- Terminologjaren hiztegia.

Laster zure etxetik pasatuko gara eskaintzera!

debagune
Deba Garaiko Euskara Elkarleen Elkargoa

Jubenil mailako pilotaria

DABID BELATEGI

*“Eskuz banaka irabaztean
hartzen da poz handia”*

— Zer moduz doa Santamas txapelketa?

— Bi partidu galdu eta bakarra irabazi dut. Hala ere final erdietara sartzeko itxaropena badut, eta behin hor egonda ikusiko da finalera heltzeko gauza naizen edo ez.

— Nola hasi duzu denboraldia?

— Ez oso ondo. Hiru hilabete oporretan izan gara, baina orain gogor ari gara entrenatzen eta etorriko dira emaitzak. Sasoi sasoiari urtarrilerako egon behar dugu, orduan Deba Arroa eta txapelketa sendoenak hasten direlako.

— Eskuz banaka edo binaka?

— Eskuz banaka gogorragoa izan arren, partiduak irabazterakoan gustorago gelditzen zara. Eskuz binaka nire bikotea Lazkano izaten da.

— Jokatutako partidu onena?

— Infantiletan Santamas txapelketa irabazi nueneko neurketa ez dut sekula ahaztuko, berezia izan zen.

— Nolako harrobia dago Arrasaten?

— Ona eta umeen artean maila polita ikusten da. Dena dela, harrobi sendoa eta pilotari onak ateratzeko frontoia behar da, eta Arrasaten dagoenarekin ezer gutxi egin dezakegu.

— Gustoko pilotaria?

— Elkororen jokoa gustatzen zait eta gainera gipuzkoarra da.



IGERIKETA Bigarren erronka



Igeri taldeko 25 igerilari Azkoitiko txapelketan izango dira zapatuan.

Arratsaldeko 4etan hasiko den proban arrasatearrrek estilo hauetan hartuko dute parte: 4X100 erreleboan, 200 libre eta braza, 100 tximeleta eta bizkarra, 50 libre eta braza eta 400 estilotan.

ATLETISMOA Behobia Donostia



Behobia Donostia lasterketa azaroaren 9an izango da. Bertan parte hartzeko izena Loramendi kirolak dendan eman behar da. Prezioa 1.000 pezeta.

FUTBOLA Eibartarrak eta Urola arrasatear- ren aurkariak




Mondrako emakumezko taldeak joan den astean atsedena izan eta gero, domekan Eibartarra izango du aurrean arratsaldeko 4.30etan Atxabalpen. Saikapenean ondo ibili behar diren bi talde izango dira elkarren kontra. Batzuentzat zein besteentzat zaila izango da garaipena, baina Arrasatek etxean jokatzeko duenez, ezin du aukera galtzen utzi.

Preferente mailako Mondrak azken boladan bezala jarraitzen badu, ez luke arazorik izan behar Urola gaintzeko. Zumarragako taldea 12. tokian dago 9 punturekin. Mondra 16 punturekin 3.ean. Norgehiagoka domekan joko-


tuko da, arratsaldeko 5etan Argixao futbol zelaian.

SASKIBALOIA Ea bada oraingoan!



Iturripe izango da Arrasate eta Tolosaren arteko partiduen eszenatoki. Zapatuan arratsaldeko 6etatik aurrera ikusiko dute elkar talde biek. Iker Zubiriak zuzentzen duen taldeak puntuak derrigorrez behar ditu saikapeneko zuloatik irten ahal izateko. Partidua egokia izan daiteke horretarako.

ESKUBALOIA Bigarren garaipenaren bila



Jesus Mari Herroren mutilek Zumaiako Pulpoko izango dute aurkari zapatuan arratsaldeko 6.30etan. Ereintzaren kontra garaipena lortu ondoren, bigarrenaren bila joango dira Zumaira. Nolanahi ere, helburua lortzea ez da samurra izango, Pulpok bloke ona du eta jokalaria amore ematen ez duten horietarikoak dira.

RUGBYA Hernani arerioa



Arrasatek eta Hernanik elkarren kontra neurtuko dituzte indarrak domekan eguerdiko 12etan Hernanin. Arrasatek bi neurketa jokatu ditu eta garaipen bakarra lortu du. Hernanin bigarrena etor daiteke, baina horretarako Getxoren kontra erakutsitako akatsak zuzendu beharko dituzte.

Bonba taldie Anoetako talde zaratatsuena eta jatorrena izateko sortua

Saul Osinaga presidente duela joan zen astean egin zen ofiziala *Bonba Talde*. Ofizialtasuna lortzeko bete beharreko bat zuzendaritza batzorde finkoa izatea zen. Horrela bada, 10 lagun daude une honetan Aitor Lopez Rekarteren alde Realeko partiduak animatzea helburu duen taldea gidatzen. Presidentea Saul Osinaga; presidente ordea Bittor Arriaran; idazkaria Carlos Beltran de Gebara; diruzaina Arantzazu Lagunilla; bokalak: Isidor Salaberri, Kaiet Laskurain, Dabid Naranjo, Joseba Onsoño, Carlos Mancebo eta Mikel Lagunilla.

Bonba taldie sortzeko ideia ez da berria, aspaldikoa baizik. Dena dela, aurten gauzatu ahal izan dute buruan zeukaten proiektua. Bi asteko bitzta duen talde honek izugarriko arrakasta izan du bazkideei dagokienez. "Epe motz horretan 150 bazkideetik gora lortu dugu eta seguruenara ez dira azkenak izango. Gu hasieran 110 lagunekin konformatzen ginen, bi autobus bete eta kitto! baina erraz gainditu dugu asmoa eta orain ikusi beharko da zer gertatzen den, autobus gehiago atera edo bazkide kopurua mugatu..." dio Saul presidenteak.

BAZKIDE IZATEKO ZER EGIN BEHAR DA

Bazkide izateko 1.000 pezeta ordaindu behar da hile bakoitzeko bosta baino lehen, bestela zigorrak ezartzen dituzte. "Erabaki hori hartu genuen gauzak ganoraz eraman ahal izateko, bosta baino lehen ordaintzen ez duenak 1.000 pezeta gehiago jarri beharko du eta hirugarren



Zuzendaritza batzordeko partaide batzuk golko argazkian eta behekoan Anoetara joan ziren lehen partidua.



aldiz gauza bera eginez gero, taldetik kanpo doa".

Bonba taldeko bazkide gehienak mutilak izan arren,

emakumeak ere badaude. Bazkideen adina 16 urtetik 35 urtera doa. Anoetako neurketa guztietan Realak eta bereziki Aito-

rrek ez du *Bonba taldeen* babsa falta izango, gainera kanpokoetara ere joateko asmoa badagoela azaldu dute.

LEHEN ESPERIENTZIA

Celtaren kontrako partidua *Bonba* taldiarendako lehen esperientzia izan zen, esperientzia ezin hobea protagonistek esan dutenez. Domeka honetan berriro Donostiara joango dira Realak Meridaren kontra jokatu duen partidua ikustera eta animatzera. 150 bazkideetatik gutxienez 50 joango dira, horiek dira eta aurten Realeko bazkide egin direnak. Bazkide harmaila onetan egin dira arrasatearrak. Bestalde *Bonba taldie* aurkezteko afari bat egingo dute gutxi barru. Aitor eta bazkideez gain, Realeko jokalaria batzuk etorriko dira. Gainera Igor Arenaza Eibarko jokalaria atxabaltarra eta Imanol Etxeberria Athletic taldeko atezain arrasatearra ere gonbidatuko dituzte.

Kontuan hartzeko bi ohar

- Bonba taldekoek Batzar orokorra egingo dute azaroaren 7an arratsaldeko 6.30etan Monterronen.
- Taldeko bazkideendako partiduetara joateko kamisetak atera dira. Kamisetak ordaintzeko bazkideek datozen bi hilabetetan 2.000 pezeta jarri beharko dute, hile bakoitzeko 5a baino lehen. Bonba taldeko kamiseta bazkideek bakarrik eskuratu ahal izango dute.

3. ihardunaldia ez da aurrekoak moduko lasaia izan. Txapelketa aurrera doan heinean jokalarien arteko haserreak areagotu egiten dira eta irabazteko gogoa eta beharra nagusitzen da. Txapelketa oraindik hasi baino ez da egin baina dagoeneko sortu dira lehen iskanbilak.

Adi, adi, ikusten ere ikasi egiten da eta

Laburrak

■ ISKANBILA 3. IHARDUNALDIAN

Tamagotxi eta Leya taldeen arteko neurketan iskanbila egon zen jokalarien artean. Partidua 10 minutu lehenago bukatu behar izan zuten, beraz antolakuntzak neurriak hartu ditu. Talde biei abisua eta 10.000 pezetako fiantza ken-

tzea izan da antolakuntzako zigorra. Azkenean Tamagotxi 4 eta 1 nagusitu zen

■ BI PARTIDU ZIGORTUTA

Txeyenex eta Borron Roll izan ziren nor baino nor zapatuan eta norgehiagoka horretan ere saltsa maltsa nagusi. Talde biei abisua eman die eta horrez

gain, Jon Zubiria jokalariaik, ez zelako behar bezala portatu, 2 partiduko zigorra bete beharko du.

■ INTERESGARRIEMAK

4. ihardunaldian jokatuko diren neurketa guztien artean lau gomendatuko ditugu: Txeyenexek Los Heredia izango du

aurrean zapatuan goizeko 11etan, tartean babajana jokotan. Ordubatean eta toki berdinean Naranja Mekanika eta Aldibi lehian. Iturripen arratsaldeko 3etan Totemen aurkaria Insert Coin izango da eta ordubete beranduago Txontxongilok eta Borrock Rollek neurtu beharko dituzte indarrak.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

Emaizak

A taldea

Ke oxtias 8 - Babajana Sexy 2
 Jotakabau 0 - Sokoakoak 6
 Onaniereng 1 - Cartonajes Igamo 1
 Argi Ibili 4 - AC surcos 3
 PipWhis 4 - Nacex 1
 KKjauri 2 - Ganbelas 1
 Nuevo taberna 4 - Branka Tab. 0
 Garaje Oscar 4 - Potrosorri 2
 Tamagotxi 4 - Leya 1

D taldea

Txontxongilo 5 - Etxe Mobil 1
 Aurrera Bolie 8 - Aldapa taberna 2
 Borrock Roll 5 - Txeyenex 5
 Naranja Mekanika 2 - Lorategi 5
 Totem 11 - Elisabeth 1
 Iluna Taberna 1 - Makai 2
 Koka Juniors 7 - Insert Coin 4
 Kamasutra 2 - At Celaya 2
 Aldibi 4 - Los heredia 0



BATZUK GOLAK SARTZEN ETA BESTEAK BEGIRA. Hori gertatzen da askotan eta hori gertatu zen Ke Oxtias eta Babajana arteko neurketan. Lehenek zortzi gol sartu zituzten arazo handi barik, besteak birekin konformatu behar. Azkenean dena dela denak lagun. Hori da kiroltasuna!

Hurrengo partiduak

Larunbata 25

Zaldibar

8.50 Sokoakoak - Nacex
 10.00 Aldapa Taberna - Elisabeth
 11.00 Txeyenex - Los Heredia
 12.00 Betrayer - Arrogoi taberna
 13.00 Naranja Mekanika - Aldibi
 14.00 AC Surcos - Potrosorri
 15.00 Ke Oxtias - Onaniereng
 16.00 Jotakabau - Ganbelas
 17.00 Jey holigans - Rotor de Bolb.
 18.00 Pepelus - Epeh
 19.00 Aurrera Bolie - Makai

Iturripe A

11.00 Orlando Piratas - DKB
 12.00 Argi Ibili - Tamagotxi
 13.00 Kom. Alpagat - Sobred. de Claro
 14.00 Etxe Mobil - Kamasutra
 15.00 Totem - Insert Coin
 16.00 Babajana - Garaje oscar
 17.00 Iluna Taberna - Koka juniors


Iturripe B

13.00 KKjauri - Nuevo taberna
 14.00 Zotz - Ainarexia
 15.00 Lorategi - AT Celaya
 16.00 Txontxongilo - Borrock Roll
 17.00 Lautherbrun - Fraguel Gol

Igandea 26

Zaldibar

9.50 Irati STS - Bukanak
 11.00 Cartonajes Igamo - Leya
 12.00 Pipwhis - Branka Taberna
 13.00 Jako al rey - DA Iriztu.



Torreauzo, 9
 Tel.: 78 19 56 / 78 32 90
 OÑATI

Etxe Aundi
 Hotela**  Jatetxea

SANTA LUZIA
 egunerako
 menu bereziak.
Kontsultatu!

Gustora dastatzeko momentuak!

MIKEL ETXAGIBEL (GUGGENHEIM-EKO ZUZENDARI ORDEA)

“Guggenheim-en ondoro”

Berba asko eta asko egin da azkenaldian Bilboko Guggenheim museoaren gainean. Jende gehienak ikusia izango du dagoeneko argazkiren bat edo irudiren bat, iritziren bat egina izango du, eta baita joateko edo ez joateko asmo sendoa erakutsita. Jende gehienak jakingo ez duena, zera da: museo erraldoiaren arduradunetarikoa bat, zuzendari-ordea, 44 urteko Mikel Etxagibel arrasatearra dela.

- Nola iritsi zara hona?

- Belgikan ekonomia ikasketak egin eta gero Arrasaten bertan hasi nintzen lanean, Fagorren. Bi urte Donostiara joan nintzen Fagorreko Nazioarteko Sailaren Administrazio Zuzendaritza lana betetzera. Fagorren 8 urte lane-

an pasatuta ETBra joan nintzen, lehenengo erosketen eta salmenten ardurarekin, eta azken 6 urteetan programazio ardurarekin, zer erosi erabaki eta gero erositakoa programatu; aldi berean, kanpoko harremanen ardura ere banuen.

- Eta orain Guggenheim-en zuzendari-ordea.

- Zuzendari-ordeetarikoa bat, lau daude eta. Nik bi departamenduren ardura daukat: komunikazioa eta garapena. Komunikazioaren sailean komunikabideekin izan beharreko harremanak, harreman publiko guztiak, eta irudia sar-
t z e n

dira. Garapen sailean, ahalik eta diru gehien lortzen saiatu beharra daukat: pribatuak,

publikoak, enpresenak etab. Adibidez, hainbat enprekin patrozinio eskemak daukagu, museoaren laguna figura ere sortu dugu, eta bertako aretoen alokairua.

- Irudia, diru-sarreak... negozio bat da hau?

- Museo bat da, eta lehen helburua jendea erakartzea da. Baina museoak edukitzea oso garestia da. Urtero 1.700 milioi gastatuko ditugu eta nire lana da euskaldunok zergidan ahalik eta gutxien ordaintzea.

“Museoa da hau eta gure lehen helburua jendea erakartzea da. Baina museoak edukitzea oso garestia da. Urtero 1.700 milioi gastatuko ditugu”

onak nabaritzen dira”

- Hutsuneren bat betetzera badator?

- Argi dago baietz. Zoritarrez hemen arte moderno eta kontenporaneoan oso tradizio gutxi dago, eta guk zulo hori bete nahi genuke.

Beste hainbat gauza ere badago. Museoa ekartzea pentsatu zenean Bilbo egoera depresiboan zegoen, eta asmoa zen nolabait berpiztea alde desberdinetatik, kulturala zen horietako bat, museoa. Dagoeneko ikusten ari gara horretarako baliogarria dela: jende ugari dator, Bilbo aldea pizten dabil, munduan zehar ezagutzen dute museoarengatik zeren eta orain arte bakarrik terrorismoarekin lotzen zen.

Kanpoko jendeari esan nahi zaio hemen badagoela ikusteko zerbait: kultura, gastronomia, natura, eta dena aprobezagarria. Hainbat eta hainbat agentzia eta tour operator jarri da harremanetan gurekin, informazio eske edo

sarrerekin zer egin daitekeen jakiteko.

- Museoa egiteak eragotziko du beste zerbait egitea?

- Euskal Herrian ez dago diru askorik, eta epe laburrean hemen gastatu dena jende edo talde batzuekiko traumatikoa izan daiteke. Kontuan hartu behar da hau epe luze-rako apustu bat dela; honen eragina poliki poliki ikusiko dugu. Orain bakarrik gastatu ikusten dugu eta normala da jendea moskeatuta egotea, baina hasi berriak gara eta emaitzak ikusiko dira.

- Euskal artisten lanek izango dute tokirik hemen?

- Euskal artista askoren lanak daude hemen: Txillida, Cristina Iglesias, Txomin Badiola, Prudencio Irazabal, Moraza.... Jendeak esaten duenean euskal artistentzat areto bat behar dela, esango nieke hori oso konplikatu dela, politikoki akaso polita baina artistikoki ez dakit oso homologarria den. Gure asmo-etariko bat bada artista euskaldunak izatea, baina bakoitzak bere tokian. Hemengo artea ezagunagoa izango da munduan zehar.

- Nola bizi izan ziren barrutik aurreko asteko gertakariak, ertzainaren hilketa eta inaugurazioa?

- Ertzainaren heriotza traumatikoa izan da, denendako. Gu Euskal Herriaren irudia aldatzeko lanean gabiltza, baina horrelakoek zaildu egiten dute gure lana. Aurrera egin behar, eta ikusi da euskaldunek eman zutela erantzun bat, eta gaur egun ere jendea etortzen dela eta onartzen duela museoa. Inauguraketa ondo atera zen. Museoaren irudia munduan zehar zabaltzeko jaia izan zen, munduan kristoren eragina duen jendea bildu zuena.

“Inauguraketa ondo atera zen. Museoaren irudia munduan zehar zabaltzeko jaia izan zen, munduan kristoren eragina duen jendea biltzea lortu zuena”

- Eraikinak jotzen du inguruan?

- Total. Titanioak, kareharriak eta kristalak lortzen duen efektoa oso ondo kokatzen da inguruan, hau da Bilbo eta hau da Euskal Herria. Niri izugarri gustatzen zait, zoragarria da.

OPEL

TAKOLO AUTOAK

FRONTERA VECTRA ASTRA

Araba etorbidea, 3
(ESKATU pabilioia)
ARRASATE
Tel.: 79 05 86

Musika Hamabostaldia

Gaur hasita 14 musika ekitaldi

Gesalibarko Aita Menni eta San Juan de Dios ospitaleen mendeurrenako ospakizunetako plater nagusietako bat hasiko da gaur: Musika hamabostaldia. Ospitaleak, Amaia antzokia eta San Frantzisko eliza izango dira datozen bi asteotako ekitaldien antzez-tokiak.

Kanpotik datozenak nabarmentzeko, Bulgariako Opera Konpainia Nazionalak Pucciniren Tosca eta Madame Butterfly ekarriko ditu Arrasatera, eta Errusia Ortodoxoa abesbatza ere izango da Arrasaten.

Ingurukoak dira, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Hydn eta Mozarten lanak eta filmeetako musika joko ditue-na; Naroa Enekotegi mezzosoprano eskoriatzarra; Juan Carlos Irizar musikaria, Aita Menniren omenez egindako "Barnetik" disko berria aurkeztuko duena; Urbil eta Txomin Artola, 'Hondarribiatik' diskoa aurkeztera datozen aita-

semeak; Amaia Martínez kan-taria; eta Easo abesbatza, gregoriano estiloko kontzertua eskainiko duena.

Arrasateko ordezkariak ere izango ditu hamabostal-diak: Goikobalu, Mondragon Brass, Arrasate Musikal

NOIZ	ORDUA	ZER	NON
Urriak 24	20:00	Goikobalu	San Frantzisko
Urriak 25	17:00	Easo abesbatza	Aita Menni
Urriak 25	20:00	Juan Carlos Irizar	Amaia antzokia
Urriak 27	17:00	Errusia Ortodoxoa abesbatza	Aita Menni
Urriak 30	17:00	Aita Menniko gaisoen abesbatza	Aita Menni
Urriak 31	20:00	Mondragon Brass	Aita Menni
Azaroak 1	19:00	Mme. Butterfly opera	Amaia antzokia
Azaroak 2	18:00	Tosca opera	Amaia antzokia
Azaroak 3	17:00	Amaia Martínez	Aita Menni
Azaroak 5	17:00	Arrasate Musikal orkestra	Aita Menni
Azaroak 7	17:00	Arrasate Musikal orkestra	Aita Menni
Azaroak 7	-	Euskadiko Orkestra Sinfonikoa	Amaia antzokia
Azaroak 8	16:30	Naroa Enekotegi	Aita Menni
Azaroak 8	20:00	Urbil eta Txomin Artola	Amaia antzokia



orkestra eta Aita Menniko gaisoen abesbatza.

Amaia antzokio ekitaldiak ordaindu egin beharko dira. Besteetan, sarrera librea izango da.

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

Merkataritzako ihardunaldia

ASOZIAZIONISMOA KOMERTZIO TXIKIETAN

LEKUA: San Viator Ikastolako Aretoa.

EGUNA: 1.997ko urriak 30, osteguna.



ORDUA: 20:30 etan.

PREZIOA: 500 pta. (Ibai-Arteko bazkideak dohairik)

SARRERA TXARTELAK: Uriarte Sport/Casa Ceciaga/
Hire/ Lasagabaster/ Aldedi

ANTOLATZAILEAK

BABESLEA



Merkataritza, Kontsumo
eta Turismo Salla

JUAN CARLOS IRIZAR, MUSIKARIA

Aita Menni, inspirazio iturri

Juan Carlos Irizar musikari ezagunak Aita Menni Ospitalekoen omenez konposatu du bere 13. diskoa, "Barnetik" izenekoa. Azken urteak Aita Menni ospitaleari oso lotuta pasa ditu Irizarrek emakumezkoen abesbatza zuzenduz. Mendeurreneko Musika Hamabostaldian ezin zen falta oñatiarraren disko honen aurkezpena. Amaia antzokian izango da, bihar larunbata arratsaldeko zortziretan.

- Zergatik Aita Menni Ospitalearen omenez?

- Aita Menniko emakumezkoen abesbatza zuzentzen dut eta. Disko honek bertako sendagile, moja eta gaixoei omenaldia izan nahi du, beraien ondoan pasatako momentuengatik. Hona etorri naizen guztietan barruan gauza asko eraman ditut bueltan etxera. Idazten hasi, eta disko oso bat sortu zen. Inspirazioa eta sentikortasuna jaso ditut Aita Mennin.

- Kolaborazio bereziak izan dituzu diskoan.

- Bai. Xabier Madina abesten eta Floren Torrelledó poema bat errezitatzen azaltzen dira. Madinarera ez zen erraza izan, ez zuen abestu nahi eta liatu egin nuen bera konturatu barik.

- Gaisoen abesbatza zuzentzea nolako esperientzia izan da zuretzat?

- Aberastu egin nau pertsona bezala. Sentikortasuna eta maitasuna beste inon baino gehiago antzeman ditut. Beste erritmo batean egin behar da lan, baina oso adi egoten dira entseietan.

- Nola planteatzen dituzu entseiuak?

- Lehenbizi bokalizazioa eta arnasketa lantzen ditugu eta gero kantak, bai euskal folklorea eta baita



guk sortutakoak ere. Askotan beraiek hitzak ekartzen dizkirate eta nik musika jartzen diet. Hori oso inportantea izan da guztiontzat. Diskoan ere beraiek idatzitako hitzez egindako kantak sartu ditut.

- Eta larunbateko zure aurkezpen kontzertua?

- 16 kanta joko ditut pianoan, disko honetakoak, berriak eta baita zaharak ere; instrumentalak guztiak, erraz entzutekoak eta alaiak.

- Hurrengo diskoan pentsatzen ari zara?

- "Barnetik" nire 13. diskoa izan da eta azaroan 14.a aterako da, "Itsasoaren murmurioa". Horrekin aspaldi hasitako zikloa itxi egingo dut, giro-musika instrumentalarena, "Donostia erromantikoa" lanarekin hasi nuena.

Orain bi dokumental zaharretarako soinu banda konposatzen ari naiz. 1925. urte inguruko dokumentalak dira, soinurik gabekoak, bata Zestoako bainuetxean filmatutakoa eta bestea Bergaran Manuel Azkonak egindakoa.

aste gazte

■ BEKAK

• *Medicos Mundik*, prestakuntza 2 beka kaleratu ditu, medikuei zuzenduta, garapen bidean dauden herrialdetan osasun proiektuetan parte hartzeko. Epea: urriak 30.

■ LANA

• Burlatako musika eskola bi irakasle lanpostu deitu ditu: armonia eta biolontxelo. Epea: azaroak 5.

• Ansoaingo Udalak lorezain bat behar du. Epea: azaroak 13.

• Gipuzkoako Foru Aldundirako 20 suhiltzaile behar dira. Epea: EAOn argitaratu zain.

■ IKASTAROA

• 3. adinerako animazio ikastaroa. Langabezia (9 hilabete antzinatasuna) dauden 18 urtetik gorako emakumei zuzenduta. Eibarren, urritik abendura. Matrikula doan eta ikastaroa amaitzean, lan egiteko aukera.

■ IKASTARO GAZTEAK

• Dantza garaikidea: interesatuta bazaude, eman izena Gazte Bulegoan. Oraindik ez da ezer antolatu, baina jakin nahi dugu ea nahiko jende dagoen ikastaro bat antolatzeko.

■ MAKETA LEHIAKETAK

• *Euskadi Gaztea*. Sariak: 500.000 pta. eta konpaktoa grabatzea. Epea: urriak 31.

• *Gaztemaniak* maketa lehiaketa, Diputazioak antolatuta. Gipuzkoako musika taldeei zuzenduta. Aukeratutako maketekin diska grabatuko da (talde bakoitzetik abesti bat). Epea: azaroak 25.

Informazio gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

"Gaisoen abesbatza zuzentzeak aberastu egin nau pertsona bezala"

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Arrasateko Bizkaia etorbideko 14, 3. ezk.an pisua salgai. Tel.: 79 22 92.

• Garagartzako Zabalbide kalean pisua salgai (Atxabalpe ondoan). 7 milioi. Tel.: 79 84 06. Eguerdietan eta gauetan.

3. Errentan emateko

• Erdialdean etxe bat alokatzen da. Jantzita dago. Tel.: 79 08 92.

• Ikasleendako pisua San Andresen. Tel.: 79 61 18. Gauean.

• Aretxabaletako Bizkaia kalean pisua alokatzen da. Tel.: 79 57 37. Arratsaldeko 6etatik aurrera.

• Santamainan pisua alokatzen da. Tel.: 79 81 15.

5. Etxe konpartituak

• Arrasaten gela bat alokatzen da. Tel.: 79 98 70. Aste barruan, gauetz.

• Bilboko La Casilla ondoan pisua osatzeko bi pertsona behar dira. Tel.: 79 19 06 goizez edo (94) 421 00 95 arratsaldeko 6etatik aurrera.

• Donostian etxe konpartitu batean sartuko nintzateke. Tel.: 79 49 30.

• Iruñako neska Arrasaten pisua konpartitzeko gertu. Tel.: (948) 26 93 43.

• Aramaion pisua osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 77 04 98. Eguerdietan.

• Eskola inguruan lagun bat behardugu pisa osatzeko. Tel.: 77 08 44.

• Gasteizen hiru mutilek laugarren bat behar dute pisua osatzeko. Tel.: (945) 25 10 37. Mikel.

• Arrasaten pisua osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 79 27 70. Lan orduetan. Alberto.

• Donostiako alde zaharrean pisua osatzeko bi neska behar dira. Tel.: 42 40 41.

GARAJEAK

7. Saldu

• Roneoko etxeetan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen delitu behar da iragarkia jartzeko.

9. Errentan emateko

• Garajea alokagai Zarugalden. Tel.: 79 23 06.

• Kontzeziñon garajea alokagai. Tel.: 79 55 20.

• Kontzeziñon garajea alokatzen da. Tel.: 79 54 07.

• Garaje itxia alokatzen da Roneoko etxeetan. Tel.: 79 19 64.

10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

LOKALAK

12. Saldu

• Kalealdean baina Zarugaldeetik gertu 100m²ko eta bi solairuko lokala salgai. Tel.: 79 07 24.

14. Errentan emateko

• Deban taberna bat eskuz aldatzen da. Martxan dago. Bezero onak ditu. Orain dela gutxi berrituta. Tel.: 19 19

54.

• Leintz-Gatzagako erdi erdian taberna-jatetxea alokatzen da. Tel.: 71 41 21.

• Bergaran ileapaindegia alokatzen da. Tel.: 76 56 85.

LANA

17. Eskaintzak

• Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak edo gaisoak zaintzeko gertu. Tel.: 79 40 72. Bitori.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 79 49. Juliana.

• Emakumea gertu umeak eta zaharrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 97 11.

• Emakume euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Titulodun neska lan administratiborako eskaintzen da. Tel.: 907 94 06 67.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta bulegoak edo lokalak garbitzeko. Tel.: 79 98 28.

• Neska gertu edozein lan egiteko. Tel.: 79 99 63.

• Astelehenetik igandera zure umeak zainduko ditugu. Tel.: 79 20 55 edo 79 65 02.

• Esperientziadun emakume euskalduna pertsona nagusiak eta gaisoak zaintzeko gertu. Tel.: 77 04 60. Marga.

18. Eskaerak

• Multimedia sektoreko elkarteak bazkidea behar du. Ezagutza eta esperientzia frogagarriak eskatuko dira. Tel.: 71 20 30. eta 929 41 59 43.

• Bi ume zaintzeko neska bat behar dugu. Tel.: 79 94 51.

• Zabalkunde handiko kosmetika konpainia batek lana eskaintzen du emakume serioendako. Tel.: 21 19 90.

• Bi ume zaintzeko emakume edo neska euskalduna behar da. Tel.: 79 76 56.

• Sukaldaria behar dugu. Tel.: 79 68 57.

• Neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 14 55. Gaueko 9etatik aurrera.

19. Denetarik

• Makinaz pasatzen dira lanak, apunteak edo dokumentuak. Tel.: 79 07 64. Fran.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• ESO eta LOGSEko klase partikularrak ematen dira. Esperientziaduna. Talde txikiak. Tel.: 79 56 78.

• Alemanezko eta portugesezko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 1etatik aurrera.

• DBHko ikasgai eta Logse-n matematika emateko gertu. Talde txikiak. Esperientziaduna. Tel.: 79 08 59.

• Majisteritza duen neska batek klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 79 35 24.

• 3. mailako injineritza ikasleak LH eta DBH klase partikularrak eman- gero lituzke. Tel.: 79 43 56.

• Psikologoak OHoko klase partikularrak, ikas teknikak eta laguntza eskolarra emateko gertu. Tel.: 77 17 02 edo 909 44 88 20.

21. Eskaerak

• Nire euskara hobetzeko, gaez, irakaste partikular baten bila nabil. Astean bi edo hiru ordu. Tel.: 79 34 91. Eguerdietan. Jabi.

MOTORRA

23. Saldu

• Garraiorako karroa salgai. Berria eta prezio interesgarrian. Tel.: 79 63 79.

• R-4 salgai. Oso egoera onean eta merkea. Tel.: 79 23 69.

• Estreintzeko dagoen GAC motorra salgai. Prezio ona. Tel.: 78 13 28.

• Ford Transit salgai. Mendirako jantzita. 3 urte. 58.000 km. Tel.: 71 51 81. Jon.

DENETARIK

26. Saldu

• Ordenagailua salgai prezio onean. Tel.: 79 14 71.

• 1. eta 2. batxilerraren teknologikoko euskarazko liburak erdi prezioan saltzen dira. Tel.: 79 71 25.

• Super Nintendo salgai. Lau jokutu. Tel.: 79 23 35 edo asteburuetan 13 17 28. Mikel.

• 1,35 zm.ko zubhogela salgai. Tel.: 79 38 16.

• Sukalde salgai (amairuak, mahaia, hozkailua, ikuzkailua, laba...) dena egoera onean. 55.000 pta. Tel.: 79 19 36.

• Bulegorako mahaia salgai. 78x158zm. Kolore argikoa. Tel.: 79 08 23. Iñaki.

• Larruzko kremaileradun txaketa beltza salgai. Berri berria. 40. tailakoa. Prezioa: 15.000 pta. Tel.: 79 35 47. Gaez. Edur ne.

• Kerosenozko berogailua salgai. Tel.: 79 78 65.

• Bi mandodun Super Nintendo salgai. 7 joku ditu. Prezio ona. Tel.: 77 10 82. Nestor.

27. Erosi

• Lau pistadun grabagailua erosiko nuke. Tel.: 79 41 97. Koldo.

30. Hartu

• Zure hozkailu zaharra bota behar baduzu gu pasatuko gara jasotzen. Tel.: 79 65 31. Maite.

• Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukalde eta hozkailu bat behar du. Tel.: 79 37 68.

31. Galdu

• Maritxu gauean Ostarkun norbaitek nire txaketa eraman zuen. Urdina eta botonadura bikoitzarekin. Balio sentimental handia dauka. Sarituko da. Tel.: 79 78 80.

• Maritxu Kajoi gauean Gaztetxe inguruan Konika markako argazki makina galdu nuen. Funda beltza eta gorria dauka. Tel.: (94) 616 65 18.

• Hiper-Eroskiko kafetegian txaketa urdina galdu nuen. Ume batena da eta bihotz gorriak ditu aurrealdean. Tel.: 77 01 51. Espe.

• Urriaren 3an gizonezko aterkin luze eta beltza desagertu zitzaidan Lagun-Aroko aseguru-etako bulegoan. Konfundituta hartu bazenuen dei egin 79 39 88 telefonora.

• Casio markako erloju beltza galdu nuen Etxeazpia eta Larringain kale inguruan (Malvinas). Sarituko da.

Tel.: 77 10 20.

32. Aurkitu

• Ordulari bat aurkitu nuen Munarrekoko zubian. Pultseraduna da. Tel.: 79 08 04.

• Irati taberna parean bizikleta bat aurkitu genuen, zeurea bada pasa zaitzek bertatik.

HARREMANAK


35. Kontaktuak

• Zumarragara egunero kotxez doan norbaitek harremanetan jartzea nahi dut. Tel.: 79 98 24. Karlos. Eguerditan.

• Astelehenerdik ostegunera Leioara joan behar dut autoz. Goizeko 9etarako iristen naiz eta buelta 14.00etan. Bidaia konpartitzea interesatzen bazaizu deitu 79 48 83 edo 79 65 34 telefonora.

• Euskal heavy-rock talde baten baxularia behar dugu. Tel.: (945) 13 67 03. Jokin.

Kalitateak mugarik ez.



ARGI-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 77 11 30
ARRASATE



Ikustea zaila den arren, bada makina bat hegazti Udalatxen.

Udalatxeko hegaztiei begira

Hizki hauek irakurri orduko, dagoeneko irakurleak jakingo du idazki honen gaia: gutxitan ikusi baina askotan beraien kantu goxoez alaitzen gaituzten horiek, askotan bakarrik platera batean bero bero, kaiola batean ala karabina tirokada batez bide erdian hilda imajinatzen ditugun horiek, hain zuzen ere. Hala ere, hegaztiak hori baino askoz ere gehiago dira. Mundu ilun, distiratsu, garratz eta gozo, zabal eta aberats baten adierazle biziak dira: beraien mundua.

Udalatx inguruneko (edo, baita ere, Arrasate inguruneko) hegaztien eskutik mundu honetara hurbildu eta (nahi duenarentzat) murgiltzea da, hilerok atera nahi duen idazki honen asmoa. Arrasatearrei, eta noski, Arrasate Press irakutzen duen edozeini zuzendua.

Idea honek badu aitzindari bat, nolabait bidea ireki duena. Mikel Arroiabe eta lagunei esker (Oskar Mayor, adibidez) *Aretxagazetan* argita-

ratzen den "Urkuluko hegaztiak" hain zuzen ere. Egunsentian, gaueko juerga sakratu ugari sakrifikatuz, eguzkia atera bezain pronto ekin diote Urkuluko hegaztien mundu ezezaguna deskubritzeari. Eta beraiei esker, txori txikien mailan Gipuzkoako txorilekurik garrantzitsuena (80 espezie daude) ezagutzeko aukera dugu. Zorionak ba, hemendik.

Udalatx eta bere inguruneke hegaztien espezie eta ale kopurua ere ez da txantxetako. Hala ere, mendian gora izerdi patsean gabiltzala gutxitan ikusten dugu hegazti bat edo beste. Gertatzen dena zera da, ez gairela fijasen. Prisma bati batzuk eramanez gero, hegaztiak hurbiletik ikusteko aukera izango dugu. Eta orduan, harrutuko gara zein kolore polit eta biziak dituzten ikustean... askotan arrak batez ere, oso lumaia polita eta abesti ederra izaten baitu, emea liluratu eta erakartzeko.

Jaio, hazi, buruaren jabe egin, bikotea (eta baita ere hirukotea, laukotea... txepetxa-

ren kasuan bezala adibidez) aurkitu, txitak sortu, zahartu eta hil... hegazti arduragabekuek ez dira garai aproposetan bizi beraien bizimoldea aurrera eramateko. Dagoeneko jakina da, azken urteotan, espezie gutxi salbuespen, lehen baino hegazti gutxiago daudela. Eta orokorrean ez espezie gutxiago, baizik eta espezie bakoitzetik ale gutxiago... Zergatik? kaiolaratu, ehizatu, eta beraien bizilekua (habitata) suntsitzen delako, azkenengo hau kaltegarriena izanik. Horregatik zaindu behar ditugu, edo gutxienez, ez kalterik egin. Eta horregatik baita ere hegazti hauetako gehienak legeak babestuta daude. Batez ere gaueko eta eguneko harrapakariak, 20 zm. baino txikiagoak eta abar.

Hegaztiak zeintzuk diren, nolakoak... eta egun osoan zehar zer arraio egiten duten jakin nahi baduzu, beraien mundu harrigarrian sartu nahi baduzu, laster arte irakurle.

Urtzi Mendizabal

Euskerien txokoa

Gentilizioa: -AR ala -TAR?

Goguen dauket aramaiora, aramaiotar eztabaida hura. Ez zala aramaiotar eta aramaiotar behar euela... gero arrak eta emiek nahastu zituzten.

Nire uste apalean, gehixenetan -ar elementua erantsi behar jako barbari; hau da, arrasatear, udalar, aramai(o)ar, elorri(o)ar, bergarar, oñatiar, aretxabaletar, eskoriatzar... donostiar, gipuzkoar, arabar, nafar...

Ez egin batzuk egiten dauiena, beti -tar akaberan jarri eta listo! Egitekotan, -ar jarri, seguruagoa izango da eta.

Egizuz herri hauek: Bedoña, Garagartza, Elorrio, Abadiño, Durango, Bilbo, Gasteiz, Oñati, Legazpi, Tolosa, Donostia, Baiona; probintzietan: Lapurdi, Zuberoa, Araba, Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia.

Karmelo Urbarren

HIES
EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik Setara.

Tel.: 79 26 99

■ Horoskopoa

- **Aries** Ez egin kasurik mindu nahi zaituen horri.
- **Taurus** Bidaia luze bat egiteko aukera izango duzu datozen egunotan.
- **Gemini** Gero eta zuhurrago bihurtu zara. Lagunak galtzeko arriskuan zaude.
- **Cancer** Zure magnetismoak petardo bat baino gehiago erakarriko du.
- **Leo** Eskuetako marrek diotenez, bizitza luze eta osasuntsua izango duzu.
- **Virgo** Lorak oparitu dakizun horri. Bihotzez eskertuko dizu.
- **Libra** Zure burukomin hori, ez da ajea izango?
- **Scorpio** Hori da hitz jariora! Ingurukoak zorabiatuta dituzu.
- **Sagitaris** Ez zaitetz tristetu udazkenearekin, begiratu ostoen koloreak.
- **Capricorn** Euskadi Gazteak musikarako gustoa ozpindu dizu.
- **Aquarius** Politikari izateko asmoa? Ah ze desgrazia...
- **Piscis** Lagunekin zita garrantzitsua izango duzu laister.

■ Gurutzegram


1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10			11		12	
13		14		15		
16			17			18
		19				
20						21

JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Banatzearen ekintza. 8. Intsektuak jaten dituen txori etorkina, isats urkiladuna eta hego luzeak ditu. 9. (Ald.) Alfabetoko zazpigarren izena. 10. Nikela. 11. Erregalatu. 13. Jakituriaren jainko egiptoarra. 15. (Ald.) Gutxi gorabehera 3,1416 balio du. 16. Xirula jotzen duen musikaria. 19. Edaten den edozein likidu. 20. Ezkonduta dagoen gizonezkoa bere emaztearekiko. 21. *Ipuin* bateko kontsonanteak.

Bertikalak 1. Jose Mari Lasagabaster, argazkizale eta sindikalistak arrasatearra. 2. Karga elektriko negatiboa duen ioia. 3. Nafarroako ibilgailuetan. 4. Sasoi, garai. 5. Ileari dago-kiona. 6. Kataluniako ibaia. 7. Publikoan. 12. Bits. 14. Lokomotoreak arrastaka eramaten duen bagoi-multzo. 17. Lau urtarotatik bigarrena. 18. Arrasateko punk talde ohia.

Horizontalak: 1. Banaketa. 8. Enara. 9. (Ald.) Ge. 10. Ni. 11. Opari. 13. Tot. 15. (Ald.) Pi. 16. Xiru-lari. 19. Edarta. 20. Senar. 21. Pi.
Bertikalak: 1. Bentxes. 2. Antoi. 3. Na. 4. Aro. 5. Kapitlar. 6. Ter. 7. Agiritan. 12. Apar. 14. Tren. 17. Uda. 18. Rip.



**ZUZEN ZUZENEAN
FABRIKATIK
ZURE ETXERA**



Sukalderako Altzarien Fabrika

Kataide poligonoa • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 79 91 75



Arrasate Kirolak eskutik hauetako kirol jantziren bat eskura dezakezu Mondrasport lehiaketan.

Mondrasport lehiaketa ATBn Futbolera bi sarrera zozketagai

Erreal, Athletic, Eibar edo Alavés taldeen hurrengo partidua ikustera joateko bi sarrera banatzen ditu astelehenero Arrasate Kirolak-ek Mondrasporten.

Sistema oso erraza da: Mondrasporten lehiaketaren txokoa, programan zehar

ikusi eta komentatutako en gainean galdera bat egiten da; erantzuna momentuan bertan eman behar da, telefonoz. ATBra deitu eta zuzenean erantzuna asmatzen duenak eramaten ditu bi sarrerak.

Baina hori ez da guztia. Noiz edo noiz, Arrasate Kiro-

lak dendak kirol jantzi edo artikulua oparituko ditu Mondrasporten. Adi beraz, Mondrasporteko lehiaketari. Eta apuntatu ondo parte hartzeko telefonoa: 77 06 90. Kirolean bezala, programan ere lehenbizi asmatzen duenak irabaziko du.

Aitor Lopez Rekarte Bonba lotsa barik

Aitor Lopez Rekartek 22 urte ditu eta txikitatik edan du futboletik etxean, aita bidea markatuta. Mondran hasi zen eta 12 urte zituela ailegatu zen Realera. Orain lehenengo taldean jokatu du. Amets handia bete du dagoeneko, baina oraindik gaztetasunaren aztarnak antzematen zaio.

Futbola alde batera utzita, xakea du zaletasun handienetakoa; xakea, eta lagunekin ibiltzea. Ahal duen guztietan etortzen da Arrasatera lagunekin egotera eta orduan beti joan ohi dira norabaitfaltzera. Badaki, hori bai, jurgak mugatu egin behar dituela eta horregatik faltan botatzen du jaietan ibiltze hori, baina ohitzen ari da poliki-poliki.

Aitorri kareta kentzen Maier Uranga eta Suar Aizpuru arduratuko dira, **Lotsa barik**, asteartean.

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 25	ASTELEHENA, 27	ASTEARTEA, 28	ASTEAZKENA, 29	OSTEGUNA, 30	OSTIRALA, 31
Asteazken zehar eskainitako programa interesgarrien errepikapena	13:30 Astebete (Errepik.)	13:30 Mondrasport. (Errepik.)	13:30 Lotsa barik. (Errepik.)	13:30 Munduari bueltak. (Errepik.)	13:30 Kukaratxa Motel (Errepik.)
13:30 Kukaratxa Motel	20:00/20:30/21:00 Berriak. Patxi Montero.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	19:15 Kukaratxa Motel. Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin. Gaztetxoeneko lehiaketa umoretsua.	20:00/20:30/21:00 Berriak.
14:15 Astebete	21:30 Mondrasport. Itxaro Zubillaga. Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zaldirako futbito txapelketa, gonbidatuak,... eta lehiaketa astelehenero.	21:30 Lotsa barik. Maier Uranga eta Suar Aizpuru. Gaurko gonbidatua, Aitor Lopez Rekar-te "Bonba".	21:00 Tertulixan. Beñardo Kortabarrak aurkeztuta, aktualitateari begiradaxoa lau gonbidaturen laguntzarekin.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	21:30 Astebete. Patxi Montero. Asteazken zehar jasotako berrien laburpena eta gai interesgarrien sakontzea.
14:45 Buru astinduz. Jam aretoko urteurrenaren kontzertua.				21:30 Kukaratxa Motel.	

Betiko
etsaia:
gorputzeko
ilea.



AMAGARA

Erdiko Kale, 54 etxabea
ARRASATE • Tel: 79 09 09



Sonda sistema.



Elektrikoa.

- Aurre egiozu gure depilazio progresiboko tratamenduarekin.
- Depilazio elektrikoarekin ere balio du.
- Depilazio progresiborako bonoa, 5 sesio + opari bat.
- Abenduaren 31ra arteko eskaintza.
- Informatu zaitetz konpromezu barik.

Datorren udan, liluratuta egongo zara.

**JUBILATU eta PENTSIONISTEN
KANPAINA**



Urria - Azaroa 97



Aprobetxa zaitetz!

MONTURA+KRISTALAK

7.900

MONTURA+BIFOKALAK

11.900

**LENTE MULTIFOKALETAN
PREZIO BEREZIAK!!**



Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari :

- MULTIOPTICASen kreditu-txartela. Diru barik erosteko modurik errazena.
- Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batere errekaratu barik.

Paregabeko prezioak

MULTIOPTICAS

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 Tel. 76 15 75 20570 BERGARA
Juan Carlos Guerra, 1 Tel. 79 29 95 20500 ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp. Tel. 88 99 88 20240 ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2 Tel. 20 05 22 20600 EIBAR

MULTIOPTICAS ERRETERIA

Pl. de La Esmalteria, 7 Tel. 51 78 11 20100 ERRETERIA

ZERBITZU OPTIKOERAN 1a

Abia zaitez **dimentsio**
berri baten bila

Proba ezazu **konpromezu barik!**

Mégane

RENAULT

Mégane



RENAULT

MECA

San Andres auzoa • Tel.: 79 50 12 / 79 59 99 • ARRASATE

Mégane Scenic bat
probatzen baduzu
Scalextric baten zozketa
parte hartuko duzu!

Zatoz azaroaren 31a
baino lehen!

